

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GORBEIALDEKO KUADRILLA

Lehendakaritzaren ebazpena, 2021eko urriaren 15ekoa. Datuak babesteko ordezkaria izendatzea eta datuak babestearen arloko ordezkariaren Estatutuko agiria onestea

Datuak babesteko ordezkariaren berezko eginkizunak beteko dituen pertsona bat izendatzeko beharra ikusita, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoen babesari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 37.1.a) artikuluan ezarritako eskakizunari jarraikiz.

Bat etorritoki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikulua ematen didan eskumenarekin, zeina aplikatzekoa baita Arabako Kuadrillei buruzko azaroaren 20ko 63/1989 Foru Arauaren azken xedapenean xedatutakoaren arabera, honen bidez, honako hau

EBAZTEN DUT

LEHENENGOA. Global Factory SL enpresaren menpeko Jesús Soler Lorent Gorbialdeko Kuadrillako datuak babesteko ordezkari izendatzea.

BIGARRENA. Zehaztea figura horrek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 39. artikuluan ezarritako funtzioak beteko dituela (2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa), eta, horrenbestez, eginkizun horiek betetzeko behar diren baliabideak emango zaizkiola, bai eta datu pertsonaletarako eta dagozkion tratamendu eragiketarako sarbidea ere.

HIRUGARRENA. Toki erakundeak bermatzen du datuak babesteko ordezkariak ez duela jarraibiderik jasoko eginkizun horiek betetzeari buruz, ez eta ez dutela kargutik kendu ezta zehatuko ere, beren eginkizunak betetzeagatik.

LAUGARRENA. Erabaki hau Kuadrillako arlo/unitate guztiei jakinaraztea, jakinaren gainean egon daitezten.

BOSGARRENA. Erabaki hau Datuak Babesteko Euskal Bulegoari jakinaraztea.

SEIGARRENA. Erabaki hau Jesús Soler Lorent jaunari jakinaraztea, eta aurkez ditzakeen errekurtsioen berri ematea.

ZAZPIGARRENA. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

ZORTZIGARRENA. Kuadrillako Batzordeari ebazpen hau jakinaraztea egiten duen hurrengo bilkuran.

Murgia, 2021eko urriaren 15a

Lehendakaria

AGUSTÍN OTSOA ERIBEKO LANDA